

20-01-2024

'Collados del Asón' parke naturalean ibilbide zirkularra.



'Collados del Asón' aparkalekutik irtengo gara, PR-S66 bidezidor balizatuari jarraituz. Pista bat hartuko dugu, eta 300 metrora utziko dugu ezkerretara dagoen bidezidor batetik igotzeko.



Pagadi bateraino igo eta Hondoion glaziar-haranera iritsiko gara, Peña Lusa eta Los Campanarios artean.

Haranaren amaiera baino arinago eskuinerantz egingo dugu goranzko bidezidor batetik PR-S66ari

jarraituz. Eremu karstikoa eta pagadia zeharkatuz helduko gara gure ibilbidearen punturik altuenera, 'Cabaña del Pozo' 1303m.



Mendebalderantz jaitsi eta Llusias mendiko pagadian sartuko gara. 'Bustalveinte'-rako bidegurutzearen kartelarekin topo egingo dugu eta PR-S66a utzi eta Brenavintorako bidea hartuko dugu. Aurrerago, bidezidor hori ere utzi egingo dugu eta iparralderantz joko dugu, 'Collado de los lobos' leporaino jaisteko.



Lepoa gaingitu ondoren, Canalhondan sartuko gara, ibilbideko punturik ikusgarrienetako bat, eta gune karstiko batetik jaitsiko gara Concinchau txabolarantz. Han, PR-S77arekin egingo dut bat gure hasierako puntura bueltatzeko.

Elurraren egoeraren arabera egokituko dugu ibilbidea. Urtarrilaren 14an elurra izan dugu ibilbidearen goikaldean, eta erraketekin ibiltzeko. Aste honetan, euria eta hego-haizearen eraginez, elurra kenduko da leku askotan. Ostiralerako aldaketa omen da, elurra edo euria etorri ahal da, baina iragarpena ez da batere segurua. Adi egon meteo iragarpenari ibilbiderako material egokia aukeratzeko:

Eguraldi iragarpena ikusi. Egunero gaurkoratuta.

Compártelo:

- Click to share on WhatsApp (Opens in new window)
- Click to share on Telegram (Opens in new window)
- Click to share on Facebook (Opens in new window)
- Click to share on X (Opens in new window)
- Click to email a link to a friend (Opens in new window)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota Egun bakarreko irteera zirkularra oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela +/- 850m

Luzera 16,7 km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

9:30 'Collados del Ason' aparkalekuan

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

'Collados del Ason' aparkalekua

Irteerarako izena emateko azken eguna

18-01-2024

Jakin beharreko kontu teknikoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Material tekniko beharrezkoa

Sasoi honetarako oinetako eta arropa egokiak. Makilak. Frontala. Ura. Edurraren egoeraren arabera: erraketak, kranpoiak.

Bestelako oharrak

Argibide gehiago:

ruben 639 19 77 bost 8

